




EAEko ekonomiaren termometroa 94,3an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

EAEko ekonomiaren termometroak 94,3ko balioa izan zuen martxoan, azken hilekoetako bilakaeraren ildotik. Otsailarekin alderatuta indizeak 1,5 puntu behera egin duen arren, EAEko ekonomiak ondo finkatuta jarraitzen du hazkunde leuneko eremuan. Barne eskariak kanpo sektorearen ziurgabetasuna konpentsatzen du eta zerbitzuen eta eraikuntzaren indarrak, berriz, industriaren geldialdia.

Petrolioaren prezioak nabarmen jaitsi da aste honetan

Brent petrolioaren eguneko prezioa
Dolarrak upeleko




Iturria: Investing.com.

Petrolioaren prezioa 63 dolarreraino jaitsi da aste honetan. AEBek muga zerga orokorrak ezarriko zituela iragarri izanak ekonomia motelduko duen gerra komertzialaren beldurra piztu du. Energia gutxiago eskatuko zelako susmoak eragina izan du petrolioaren prezioan. Horri gehitu behar zaio LPEEk maiatzean petrolioaren ekoizpena aurreikusitakoa baino askoz gehiago handitzeko akordioa.



Otsailean, 311 enpresa eratu ziren EAEn

EAEn eratutako enpresak
Urte bakoitzeko otsaila




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, otsailean 311 enpresa eratu ziren EAEn, 2024ko hilabete berean baino %13,6 gutxiago. Hala ere, gogoratu behar da iaz bisurtea izan zela eta lanegun bat gehiago izanzuela. Beste aldetik, enpresak eratzeko aurten ezarri den kapitala iazkoa baino %12,5 gehiago izan da.

EAEko KPI indizea %2,8ra beheratu zen martxoan

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Martxoan, EAEko kontsumoko prezioek %2,8ko urte arteko igoe-ra izan zuten. Beraz, hilabete horretan puntu erdi jaitسي zen aurreko hileko tasaren aldean (%3,3). Elektrizitatea, erregaia eta pakete turistikoak dira moteltze horren erantzuleak. Azpiko inflazioa, berriz, %2,5ean kokatu zen.